

OIHU!

IRUÑERRIKO MUSIKA ASKEA

*ZENBAKI
BAKARRA

2017ko irailean



SORGINKALE, KAPITALISMOTIK AT KULTURA SORGINDUZ

ERREPORTAJEA

MUSIKARI PREKARIOAK · IRUÑA TALDEA · MUSIKAZ 11 KOLORE · SKABIDEAN

ELKARRIZKETA

ELKARRIZKETA

ERREPORTAJEA

ELKARRIZKETA

KONTRAKULTURA, IRAULTZAREN ERDITZE GELA HALA URKA


IRITZIA

...BADATÓZ SANFERMINAK 2018...

bulfza
ESZENA
LOKALA

ANTI-KAPITALISTA · ANITZA · EUSKALDUNA · FEMINISTA





**MUSIKARI
PREKARIOAK**

ELKARRIZKETA

5



IRUÑA TALDEA

ELKARRIZKETA

15



**MUSIKAZ
11 KOLORE**

ERREPORTAJEA


33



**SORGINKALE,
KAPITALISMOTIK AT
KULTURA SORGINDUZ**

ERREPORTAJEA

21



SKABIDEAN

ELKARRIZKETA

41

4

OIHU BAT ZARATA ARTEAN

EDITORIALA

8

**KONTRAKULTURA: IRAULTZA-
REN ERDITZE GELA HALA URKA**

IRITZIA | KARLOS ANDIÓN

20

**KONTRAKULTURA IRUÑERRIA
GLOBALIZATUAN**

IRITZIA | PABLO LOPEZ

28

OHOLTZA GAINEAN

IRUÑERRIKO MUSIKA TALDEEN GIDA

31

ONA MALIKIAN

ILUSTRAZIOA | SUAK SORKUNTZAK

37

UHINAK KOLPEZ KOLPE

GOMENDATUTAKO IRRATSAIOA

38

GARUNA AFINATUZ


DENBORA PASAK

46

ENTZUN!

GOMENDATUTAKO ABESTIAK

Editoriala



OIHU BAT ZARATA ARTEAN

Desatsegina den soinu gisa definiturik dago zarata, baina, zerrek egiten du soinu bat desatsegin? Zein da zarata eta ez zarataren arteko muga?

Pentsatu ezker, lehenbizi, potentzia akustiko oso altua dutelako desatseginak zaizkizun soinuak identifikatuko dituzu zarata gisa: etxe pareko obrak, ezin hurbilago eta oihuka hitz egiten duen laguna, auzoko racingeroaren kotxea, hoge minuturo albotik pasatzen den tren... Baina, zergatik sartzen gara orduan musika ezin altuagoa daukan taberna horretan? Eta nori ez zaio suzirien azken traka edo txaranga batekin joatea gustatzen? Soinuaren bolumenak ez digu zarata zer den eta zer ez den esaten.

Eta kulturarekin eta gustu indibidualarekin lotutako kontu bat baldin bada? Punk estiloa zarata da batzuentzat, eta musika estilorik gus-tukoena beste batzuentzat. 'Despa-

cito' abestia udako kantarik onena da batzuentzat eta, badira, entzuten badute tabernatik irtengo direnak. Gustuaren araberako sailkapenak ez du balio, erabakia norbanakoaren esku geratzen baita ezer ez argituz.

Zarata jaialdi batean era prekarioran lan egiten dagoen langile bat hiltzerakoan kontzertuek jarraitzea da, zarata eraso sexistak sustatzen dituen musika da, zarata kapitala metatzeko merkantzia izateko sortutako musika da, zarata jaialdi «alternatibo» batean talde bati trago bat eta beste bati 5000€ ordaintzea



da, zarata talde komertzial handien musikarekin negozioa egin, hauei ere negozioa eginez, eta alienazioa sustatzen duten '40 Principales' eta 'Gaztea' dira.

Langile, emakume, beltz... zapaldu gisa, zarata, gehiengoaren interes komunaren aurka sortzen den inkomunikazioa eta sistema kapitalista patriarkalaren birproduzioa da, metodo ezberdinen bitartez kapitalak egiten duena: desinformazioa, zentsura, alienazioa... Horra hor gehiengoarentzako soinu desatsegina.

Zarataren zati bat den Iruñerriko «poluzio musikarekin» bukatzeko gero eta handiagoa da antolakuntza: Musikari Prekarioak, Borborka (Iruñerriko Sare Kontrakulturala), Sorginkale... Bide horretan pausoak emateko ekarpen bat da OIHU!, zerbaki bakar hau izango duen Iruñerriko musika askearen inguruko aldizkaria. Oihu bat zarata artean, baten batek burua biratu dezan.

Ezkerrean, Ahuntzape taldeko Txus eta, eskuinean, Skabidean taldeko Tasio, biak Musikari Prekarioakeko kideak GAIZKA AZKETA


**MUSIKARI
PREKARIOAK**

«ESZENA LOKAL EZ KOMERTZIALA SUSTATU BEHARRA DAGO»

Nork begiratzen du bertako musika talde lokal txikiak dauden jaialdi bateko kontzertuen kartelean? Nori iruditzen zaio gaizki talde txiki bategen famatua den beste batekin konparatuz askoz gutxiago kobratzea? Nor arduratzen da oholta gainean dauden musikariek dituzten baldintza eta eskubideetaz?

Euskal Herriko hiriburu historikoan gauzak aldatzen hasi dira. Iruñerriko musikariak Musikari Prekarioak kolektiboan antolatzen dabilta hausnartu, eragin eta borrokatzeko. Badituzte jadanik hainbat proiektu eta aldarrikapen. Beharrizanen artean, momentu honetan, nagusia, musikarientzako lokal autogestionatua.

Nola eta noiz sortu zen Musikari Prekarioak?

Txus: Duela urte eta erdi sortu zen gutxi gora behera kolektiboa Iruñeko Alde Zharreko Compañía 3ko gaztetxean. Esparruaren prekaritateaz eta gure beharretaz jabetzen hasi ginen.

Tasio: Entsaiazen genuen oso leku urrunetan, ordaintzen, tratu txarra pairatzen genuen alde guztietatik, aurpegira barre egiten ziguten musika talde txikiok... Horregatik erabaki genuen koordinatzea eta kolektibo bat sortzea.

Prekarioak hitza izenean daraman baina prekario izan nahi ez duen kolektiboa zarete. Nola azaltzen duzue hau?

Tasio: Prekarietatetik atera nahi dugu, ez izan dudarik. Izenak gaur egungo errealitatea irudikatzen du, besterik ez.

Txus: Gu geu oraindik definitzen ari gara. Ibiltzeari ekiten ari garen kolektiboa gara.

Zergatik behar dira Musikari Prekarioak bezalako kolektiboak?

Tasio: Eszena lokal ez komertziala sustatu beharra dagoelako: talde berrien sorrera sustatu, horiei aurrerak ematea... Bestalde, taldeekiko tratuaren balantza orekatu beharra dago.

Txus: Inklusio katxe handiagoa daukaten taldeekin batera jotzerakoan talde txikiarentzat dira beti baldintzarik txarrenak. Telonero

hitzaren atzean ez daude gehienetan kontu ederrak. Baloratzen ez den lan gehiegi egin behar izaten dugu talde txikiok.

Zein helburu jarri dizkiozue kolektiboari? Esan dezakezue urte eta erdi ondoren forma hartzen ari dela?

Tasio: Saiatu gara hasieran erabakitako hainbat puntu garatzen.

Txus: Esate baterako erabilera emateko eta kultura sortzeko espazio autogestionatuak behar ditugu eta eskaera hori presente izan dugu.

Tasio: Bestalde musika taldeekiko tratu duina aldarrikatzeko beharra ikusi dugu nahiz eta oinarritzko zerbait izan. Koherenteak izateko. Koherenteak zentzu guztietan. Beste puntu bat generoari dagokiona da eta, hori, Iruñerriko eta ia edonongo panorama musikalean argi ikusten da. Patriarkatua eszenatoki gainean dago ere. Puntu horren garapenerako beharrezkoa da emakumeen presentzia Musikari Prekarioak handitzea.

Distri izaera era hartzen ari zarete?

Tasio: Beste hainbat konturen artean; bai. Ez dugu nahi Musikari Prekarioak soilik kontzertu antolatzaile batean bihurtzea, askoz harago heldu nahi dugu. Horretarako, komunikazio lan handia dugu egiteke. Merkatu kapitalistatik kanpoko kultura sortzeko espazio autogestionatu bat lortzerakoan salto kualitatibo bat emango dugula uste dut, ditugun kate asko kentzeko balioko baitu.

Noiz bihurtzen da musika merkantzia zuentzat? Non daude mugak?

Txus: Uste dut asko direla kontuan hartu beharreko faktoreak. Ez da berdina gazte asanblada batetik edo udaletxe batetik deitzen bazaituzte. Eta kontzertu horiek antolatzen dituztenen helburuak zeintzuk diren kontuan hartu behar da ere, etekina kolektiboa edo pribatua den esate baterako.



Tasio: Jotzeagatik faborea zuri egiten dizutela dirudien lekuetan diru gehiago eskatzearen alde nago. Ordea, jotzeagatik eskerrak ematen dizkizuten lekuetan malgua izan behar dela uste dut.

Txus: Gainera, azken horietan errepikatze gogoekin geratzen zara askotan. Baina beno. Talde bakoitzak bere neurriak hartzen ditu independentea den heinean eta bi talde berdin inoiz ez dauden heinean. Musikero Prekarioak ez dago jotzeagatik kobratzeko prezio minimorik finkatuta.

Tasio: «Jotzeagatik faborea zuri egiten dizutela dirudien lekuetan diru gehiago eskatzearen alde nago. Ordea, jotzeagatik eskerrak ematen dizkizuten lekuetan malgua izan behar dela uste dut»

Tasio: Hori da. Bileretan pertsona gisa parte-hartzen dugu, eta ez musika talde gisa.

Gaur egun asko dira kolektibo honen inguruan mugitzen diren musika taldeak?

Txus: Gutxi gora behera hamar-hamabost taldetako kideak gauden aktiboki parte-hartzen. Eta nahiz

eta prekarietatea soilik gazteriarri lotutako zerbait ez izan parte-hartzen dugunok gazteak gara. Esango nuke helduz osatutako musika talde txikietan prekarietatea gordinagoa dela. Hemendik dei egiten diegu ere bileretara gerturatu daitezten.

Tasio: Lehen esan bezala, komunikazio lan sakona egitea falta zaigu, baina horretan gaude, kolektiboa ezagutarazteko eta Iruñerriko musikariak antolatzeke.

Zerbait daukazu esku artean?

Tasio: Barme formakuntzak antolatatu ditugu eta horretan murgilduko gara, ikuspuntu eta gako ezberdinen inguruan eztabaidatu eta ondorioak kolektiboki ateratzeko.

Txus: Behar dugun espazioaren kontuari kaña sartzen ari gara ere, kolektibo bezala finkatzeko ezinbestekotzat jotzen dugulako espazio autogestionatuak izatea, taldeek ku-deatutakoa, independentea.

Denda ibiltaria @IMPrekarioak





Karlos

KONTRAKULTURA: IRAULTZAREN ERDITZE GELA HALA URKA

O harra: Artikulu hau 'Demokrazia Zero: Si no hay revolución, este no es mi baile' fanzinetik atera da. 'Iraultza kulturaren bidez' hitzaldiaren gidioa eta 'Gazte Boterea Eraiki' jardunaldietako kontrakulturaren inguruko mahai-inguruaren dinamizazioa sakontzen du. Honekin Iruñerriko zein beste edozein lekutako talde zein eragile kulturalen barne eztabaidak sustatu nahi dira, musika mugimendu alternatiboari indarra eta batasun politikoa emateko tresnak ematearekin batera.

Alde antifaxistan izandako kontrairaultzarengatik 36ko iraultza galdu zela diote, eta ez Franko eta guda zibilarengatik. Antzeko zerbait aplikatu diezaiokegu iraultza kontrakulturalari. Urperatu eta merkantilizatu dutenak ez dira etsai gisa gehien adosturik ditugun SGAE eta 40 Principales; zirkuitu alternatiboan nagusitutako balore hedonista eta kapitalistak dira kultura antikomertziala hiltzen ari direnak.

KONTRAKULTURA ETA IRAULTZA

Kontraboterearen gakoetako bat da kontrakultura. Gaur egun, borroka sozialen oinarrietako bat da honek finantziazioan (alkohol salmenta kontzertuetan, birbalarizatuz) daukan garrantziarengatik eta mezuak hedatzeko eta mobilizatzeke daukan eraginkortasunarengatik. Subjektu kultural eta politiko gisa ezin da hau ez baliatzea ulertu. Kulturaz kontziente izan behar da arma eta eraldaketa elementu gisa, finkatutako helburuekin kohesionatuz.

Kultura garrantzitsua izan da beti iraultzarako. Anarkismoan, adibidez, askatutako ateneoak kontrakulturaren iturri eta hartzaile izan dira XIX. mendearen bukaeratik. Testuinguru hartan kolektibo gehienek haien kazeta propioa zeukaten eta iraultzari lotutako argitalpen edota antzezlan ugari zeuden. Gorakada 30. hamarkadan izan zuen zinema anarkosindikalistaren produkzio autogestionatuak zazpigarren artea irauli zuen, errealismo sozialistak egin zuen bezala. Kultura militantziazatik eta militantziarako ulertzen zen.

XX. mendearen erdialdean, situazionismoak, 68ko Maiatzak eta belaunaldi berriek protagonismoa eman zioten kontrakulturari espresio eta eraldaketa bitarteko gisa. Anarkismoan, A borobilduak (gaur egun sinbolo tradizional gisa zabaldua baina apenas mende erdia ez daukanak) aldaketa hauek laburtzen ditu bisualari garrantzia emanez aurreko ikonoklasiaren aurrean, eta or-

todoxiarekin apurtuz errebeldia eta haustura gaztea bezalako konnotazio berriekin. Subkultura berriekin konektatu zen, sindikalismo tradizioaletik urrun zeuden errealitate oso anitzetan ideia iraultzaileak txertatuz. Punkak bere egin zuen A hura, zirkulua (ordena) gainditzen duena, diskurtso nihilistarekin baina elementu iraultzaileak asimilatuz.



Sid Vicious eta Bakuninen arteko tirabira. Langabezian, birmoldaketa industrialean, marjinalitatean, heroinan, beldur nuklearrean, «etorkizunik ez»-ean eta abarrean bizitako belaunaldiarekin bat egiten zuen; borroka armatua eta kontzientzia antierpresiboa beti presente.

Kontrakultura gazteria eta iraultzaren arteko lokarri bilakatu zen, baina baita negoziarako eta erabileraren estetikorako sistemaren tresna ere. Euskal Herrian, kontrakultura eta politika irakinaldiaren fokuan, «1983an asmatutako Rock Radical

Vasco» etiketak eszena horri errendimendu ekonomikoa ateratzeko erabili zuten. Ezker abertzaleak arrotza zela eta inperialismo yankiaren zerbitzutan zegoela esan zuen hasiera batean. Ordea, gazteriarengan zuen eragina ikusi eta gero kanalizatu eta bultzatu zuen (Egin Rock, Martxa eta Borroka...), bere burua ere eraldatuz. Garai hartako borroken (lehen gaztetxeak, txoznak, okupazioak, prezesio ateoak, intsumisioa...) kronika izatera pasa zen kontrakultura.

Kultura erradikalaren profesionalizazioak eragin zuen sektore politizatuaren erreakzioa, ezberdintzea bilatuz; do it your self berreskuratuz eta infoshopekin (gazte kontrakulturaz zipriztindutako eta espresio kultural eta borroka berrirentzako ateneoen eboluzio gisa). Ideia iraultzaileak kontrakulturaren zentralitatea bilakatu ziren, militante klasikoek bere eginez. Gainera, ideologia eta militante iraultzaile anitzen lotura bihurtu zen.

Testuinguru hartan agertu zen iraultzaren negozioa, fenomeno haren potentzialaz kontziente. Eta, horri erantzunez, filosofia antikomertziala jaio zen; hasieran punkari eta hardkoreari (anarkopunk, straight edge...) lotuta, baina politiki-poliki baita estilo berriei ere; kultura esentziarengatik baita iraultzailea, ez estetikarengatik. 70 eta 80 hamarkadetako borroka autonomo eta antiautoritarioak disolbatu ziren eta hurrengo hamarkadan distribuzio antikomertziala izan zen esperientzia hauei eta sortu ziren berriei kohesioa eta bultzada eman ziena.

ANTIKOMERTZIALA

Kapitalismotik at kultura sortzea eta hedatzea posiblea dela erakusten du distribuzio alternatibo antikomertzialak. Honen erroa kultura libre da, hau da, traba ekonomikorik gabe jende guztiak eskuratu dezakeenaren ziurtasuna. Gainera, perspektiba antikapitalista batetik abordatzen du premisa; kultura eta egile eskubideekin lotutako egitura enpresaria-

letik at garatzen da; azken hau ez ulertuz lanaren errekonozimendu gisa, baizik eta irabazi-asmoekin kultura pribatizatzeko mekanismo gisa.

‘Antikomertziala’, beraz, irabazi-asmorik ez daukan eta bitarteko kapitalisten bidez editatzen, banatzen eta hedatzen ez den sorkuntza kultural edo artistikoa izango litzateke. Ez du soilik mezu eta kultura iraultzaileak hedatzea eta indartzea helburu; iraultza izan nahi du. Txiki-kientzako ipuin bat aipamen politikorik edo izaera ideologikorik ez duena antikomertziala izan daiteke guztiz. Zer da orduan definitzen duena? Kapitalismo kulturaletik at egotearen kontzientzia. Hor sartzen da jokoan distribuzio alternatiboa; sorkuntza horiek argitara atera daitezzen tresnak sortzeko; antikapitalismoa aurkezpen narrasaren, hedapen txarraren eta ekimen prekarioen sinonimoa izan gabe; kultura (eta kalitatezko kultura konprometitua) Kapitalaren ahutzetatik at posiblea dela erakustea.

Hau guztia kapitalismoak diruaren logikarekin bizitzako esparru guztiak inbaditu nahi dituenaren testuinguruan gertatzen da, kultura barne (garrantzitsua produktu kulturaleri etekina ateratzea edota horientzat erakuslehoak bultzatzea da; diskografia batentzat, esate baterako, musika jaialdi bat). Merkatuaren totalitarismoa ez da negozio kultural handiekin konformatzen, eta bere nonahikotasuna hain da handia borroka politiko eta sozialak eta hauei lotutako espazioak ez direla merkantilizazio kulturaletik libratu; are gehiago, hainbat kasutan horretaz baliatu dira. Eta, atzetik, jende partikularrak kultura-iraultza binomiotik etekin ekonomikoa lortu du, arrakastarako tranpolin gisa eta borrokaren kontura; mozorro iraultzaile antikapitalistarekin azken batean enpresa musikal gisa jokatzeko, mezuaren eta jarreraren arteko koherentziarik gabe. Eta haien atzean underground zigiluak, diskografia independenteak, bitartekariak...

AUTOGESTIOA TENDENTZIA DA

Zirkuitu antikomertziala defendatu eta osatzen dutenek bi arrazoi nagusi dituzte. Lehena ermitauaren iruzurra deitu dezakegu, inkoherentzia baten justifikazioa beste inkoherentzia batzuen bitartez («koherentzia izan nahi baduzu, joan mendira eta ermitau gisa bizi»). Kasu honetan, zergatik izan kutsugabeak kulturalen beste esparru batzuk ahaztuagoak baditugu? Logika antikomertzialak kontrako paradigma jarraitzen du: autogestioaren kontuan ahaztuagoak ditugun esparruetan inkohe-

«Txiki-kientzako ipuin bat aipamen politikorik edo izaera ideologikorik ez duena antikomertziala izan daiteke guztiz»

renteagoak izateak ez du esan nahi autogestio praktikak garatuagoak ditugun esparruetan inkoherenteak izan behar garenik. Ideia hau iraultza da tendentzia gisa: tendentzia autogestionatzera, kapitalismoaren lurra irabaztea, eta ez aldrebes. Kultura, beste edozein puntu bezala, egokia da abiatzeko.

Bigarrenik, estatus borrokalaria mantentzen negozioan sartzen diren kultura sortzaile komertzialek ekitaldiak antolatzen dituztenen autogestioaren erabilera okerraren aitzakia erabiltzen dute horrek ko-

mertzializatzerara behartzen diela esanez. Honekin sorgin-gurpila gertatzen da: «banda batek cache altua eskatzen du; antolakuntzak ordaindu eta besteei ez die banatzen, ezin autogestionatuz; azken hauek cachea eskatzen bukatzen dute». Kultura sortzeak gastuak ditu (banda baten kasuan lokala, instrumentuak, grabazioa...). Kultura militantzia gisa planteatuz bandaren autogestioa gainontzeko kolektiboaren gisa errespetatu beharko litzateke. Konponbidea kolektibo edo espazio bakoitzean irizpideak finkatzen garatuko litzateke, guztientzako autogestioa sustatuz. Baina cacheak irizpide horiek ordezkatzeko ez du balio borrokaren filantropoa izateaz harrotzea, borroka horiekin daukazu erlazioa kontratuzkoa eta interesatua baita.

KULTURA BORROKALARIAREN ERABILGARRITASUNA

Aurrekoari hainbat ñabardura gehitu behar zaizkio. Lehenik, kulturen bidez ideiak komertzializatzen dituztenentzako kritika dela. Musikatik bizitzea legitimoa eta zintzoa da (baita gomendagarria ere ahal eta gustuko baduzu) besteen borrokaren kontura ez den bitartean eta saltzen duzunarekin kontsekuente zarenean.

Bigarrenik, egoera hauek seinalatzea, salatzea eta aldatzea beharrezkoa dela kontraboterea sortu nahi badugu. Iraultzaren negozioan parte-hartzen dutenak ez dira zer-



gatik klase etsaiak izan behar (salbuespenezko kasuak dira hortik aise bizi direnak eta jabetzaren kontrola dutenak); horrek ez du esan nahi pobrezia etikoaren aurrean begirada kendu behar dela. Zer nahi duzu aldatu zeutik hasten ez bazara? Honek guztiak ez du zirkuitu hauen erabile-
ra puntuala ukatzen, nahiz eta mugimendu antikapitalistek ez lituzketen bultzatu beharko.

Adibide bat: La Sexta bezalako mass-media bat efikaza izan daiteke, puntualki, iritzi publikoa sentsibilizatu eta kontzientziatzeko hainbat gai sozialetan (etxe-kaleratzeen eta ustelkeriaren inguruko erreportajeak...). Baina hori sistemaren aurpegi atsegina izanen da, ez iraultzailea (kasu honetan Atresmedia makroenpresa boteretsu eta faxista), sistemaren oinarriak lantzean ikusiko den zerbait (espainiar estatuaren batasuna, poliziaren eta jabetza pribatuaren defentsa...). «Durrutiren hilobian mozkortuko gara herriari indarra emango dioten ideia anarkistak berpizteko» esaldi huts eta baldarrak gazteriak Durruti ezagutzea eta lehen izaera errebeldea sustatu dezake. Horrek ez du esan nahi esaldiaren egilea den Ska-P taldea antikapitalista edo iraultzailea denik; are gutxiago anarkista. Horregatik, kontrabotere espazioetan, azken izaera hori bai duten eragileek, besteen gaintetik, lekua izan beharko lukete. Kulturak injustiziak ezagutzeko edo ideietara hurbiltzeko balio izateak ez du iraultza-

gozia justifikatzen, are gehiago, bere esentzia (eraldaketa tresna) prostituituko litzateke eta ez soilik bozgorailu gisa. Kontzientzia proletarioa punka edo raparen aurrekoa da, eta dudarik gabe musika baino bitarteko desalienanteagoak daude zapalkuntzaz jabetzeko eta pentsamendu iraultzailea garatzeko.

Zein punturaino dira talde komertzial borrokariak borroka sozialetako aingura? Bada gehiago traol aldarrikatzaileen eta lema makarretako kamiseten fenomeno bat edo eraldaketa sozialerako? Kontrakulturak sortutako militantzia errearen emaria jaisten joan da 80-90 hamarkadetatik, kontrakultura profesionalizatu eta finkatutako zirkuituetan estandarizatu den heinean. Industria kultural «iraultzailea» eta hau osatzen duten bandak gora doaz baina ez dut korrelazio hori esate baterako kaleko borroketan ikusten. Are gehiago, fan fenomeno sustatzen da, mezu politiko hutsekin, irakaspene lemetan geratuz. Abestiak eraginkorrak dira hainbat xedetarako baina ezinezkoa da edukitzea liburuek edo eztabaida bidezko formakuntzek izan dezaketen konplexutasun ideologikoa. Azaleko kontzientzia alferra ematen da, esfortzuan eta arduraren ez hain konprometitua.

Baliagarriak bezain eztabaidagarriak dira ere hainbat elkartasun ekimen, esate baterako multak ordaintzea edo presoak laguntzea helburu irabazi-asmoa daukatenak. Joe-

ra naturala etekin gehiago lortzeko kontsumitzaile gehien erakartzeko potentzialtasuna duten taldeak kontratatzea izango da. Baina horrela espazio handiak talde gutxi batzuk soilik bete ahal izatearen zirkulu biziotsua sortuko dugu. Esfortzua-
ren eta diru-bilketaren arteko oreka bakoitzak bilatu beharko du. Adibideak soberan daude zeinetan ekimen antikomertzial bat, egoki landuz eta mezua zainduz, egitura komertzialean ardurak delegatzea bezain efektiboa izan daitekeen.

MUSIKA IRAULTZAILEAZ HARAGO

Zergatik hau ez da literatura bezalako beste esfera kultural batzuetan gertatzen? Esparru hauek ez direlako musikala bezain lukratiboak. Izan ere, askotan galerak dakartzate, inkongruentzia ideologikoen indarra txikiagoa izanik. Idatzizko edota ikus-entzunezko produktu aldarrikatzaile bat sortu edo hedatzen

«Fan fenomenoa sustatzen da, mezu politiko hutsekin, irakaspene lemetan geratuz»

duenak, ekonomikoki normalean gastuak tapatzea du xede, arraroa izanik proiektua liburutegi edo espazio sozialetan aurkezteagatik cachea kobratzea edota talde batzuek egiten duten moduan azpikontratak erabiltzea. Gutxiago profesionalizatutako zirkuluak dira, ondorioz, askoz gutxiago merkantilizatuak. Oso arraroa izanen da karga ideologiko iraultzailea duen best-seller edo aurrekontu altuko pelikula bat aurkitzea, gainera borroka sozialen kontu finantzatzen dena. Zirkulu antikomertzialek ez dute material ez musikalen distribuzio eta edizio sare eraginkorrak egonkortzea lortu, ohiko fanzinez gain, nahiz eta azken hamarkadan liburuen edizio eta esku-ratze kantitatea handitu den. Nahiko tresna ez izanik eredu hibridoak



sortzen dira, konbentzionalagoak baina ikuspuntu politikoko kultura askea sustatzen dutenak.

IRAULTZA PREDIKATZEN EZ DUEN KULTURA; IZAN DADILA

Iraultza-negoziorekiko erantzun antikomertziala kulturaren berezko iraultzan oinarritzen da, erro libertarioak dituen: kulturarekin bilatzen dena helburua lortzeko bitartekoetan aplikatzen da (helburua bitartekotan dago). Boterea eta Estata suntsitzeko mekanismo autoritarioak ordez autoritatea eta hierarkia zalantzan jartzen dituzten tresnak sortzen diren bezala; edota sistema politikoa aldatzeko bertan ez parte-hartu eta horrekin apurtzeko estrategiak pentsatzen diren bezala; kultura iraultzailea egiteko, autogestioa eta eskura ditugun bitartekoak erabiltzen dira, merkatu kulturala loditu ordez. Hau da, iraultza egiteko, sinpleki egiten da, egunez egun, hurbil. Interesa piztu eta hurbil dagoena kultura baldin bada, hortik hasi zaitezke. Baina pertsonalaren eksklusibotasunean erori gabe, tresna hau osagarri gisa erabiliz eta ez borroka integralaren ordezkoko gisa. Osterantzean, aisi iraultzailea ordez, soilik iraultza ludikoa egonen da. Dena den, gutxi dira espektatibak norbait «berean» (trebetasuna eta interesa duenean) kontrakoa egin eta jolas kapitalistan sartzen denean, justuki bertan errealitatea gehien aldatu baitezake. Filosofia antikomertziala, beraz, industria kulturalaren bidezko masa handien konkistatik aldentzen da (nahiz eta iraultza bertatik sustatzeko izan). Jakinaren gainean eskema kapitalistetan erortzea nekez izanen da konponbidea.

Hau guztia idealistatzat egotziz «politizaturik egoteagatik ez naiz prekariora izango» pragmatismo faltsua inposatzen saiatzen da. Lana militantziarekin, hedonismoa aktibismoarekin, hobbyak beharriarekin, borroka aisiarekin eta abar nahasten dituzten eztabaidentzat abiapuntu. Dena den, musikatik bizi nahi duen bandak ezin du bere des-

prekarizatzearen etika justifikatu borroka sozialen eta politikoen kontura bada, soilik interes propioak defendatuz.

Baina ideia hau, musika enpresen estandarte izateaz gain, kontrakulturaren zirrikitu xumeetatik filtratu da. «Artea maite dutelako», dibertitzeko edo borrokarengatik egiten duten kasuetan, iparra galtzen da. Orokorrean, gogoengatik sortzen dira bandak, eta gehiago politizatuak (aurreuposatzen da helburu komertzialik gabe hasiera batean). Dibertitzeko gogoak, ideiak adierazteko, lagunekin egoteko, mezurakin eragiteko (baita militatzeko beste era bat bezala ere, distantziak mantenduz). Noski, inork ez ditu sortzea erregutu. Zure taldea ez da inolako mugimendu iraultzaileren pilarea. Borrokak bultzatzeko erabiltzen baduzu, ongi etorria, baina egizu nahi duzulako, ez horrengatik zerbait itxaroten. Eta, noski, asko jasoko duzu horrengatik, eta ez da hobby eta militantzia ereduaren artean prekariora. Guztiz alderantziz.

BALIO KAPITALISTAK KULTURA ANTIKAPITALISTAN

Politizazio faltak lekua uzten dio 'saltzen ez dena nahi ez duelako da' esaldiari. Materia kulturalarekin lotutako kontu iraultzaileen mugaketak baloreen krisia du oinarri. Gardentasuna, feminismoa, aukera berdintasuna, elkartasuna, horizontaltasuna, autogestioa... filosofia antikomertziala definitzen dute eta gaur egungo panorama kulturalan (baita alternatibo auto-izendatutakoan ere) ez ditugu aurkituko. Hala zioen Leongo Hachazo taldeak: «No hay que olvidar que todo el mundo puede cantar, no hay que olvidar que todo el mundo puede tocar, no hay que olvidar que tú solo eres uno más, colaboración, esto no es una competición». Hau da, inor baino gehiago izatea hau jendea-ri gustatzeagatik. Kontrakultura jarriera gisa edonork erabili dezakeen tresna da, musikaren «kalitatearen» inguruko iritzi subjektiboen gaine-

tik. Baina Hachazok gaur egun nahi zuen elkartasuna banden artekoa zen soilik, sakontasun politikorik gabe. Batzuetan sareak sortzen dira, musika asanbladak, baina ez da eragileen arean helburu politikoak jartzera eta lantzerantz heldzen. Askok dira balio kapitalistak musika alternatiboaren panoraman: lehiakortasuna, pribatizazioa, hierarkia, opakutasuna, ira-

«Politizazio faltak lekua uzten dio 'saltzen ez dena nahi ez duelako da' esaldiari»

bazi-asmoa, delegazionismoa, fama pertsonala, egolatria handia... dena indibidualismoaren eta merkantilismoaren aterkiaren azpian, bereziki zure produktuak salmentaren errentagarritasunean bertan baino gehiago saltzeko obsesio gisa ulertuta.

Lehenengo ilaretan soilik mutilak dituzten kontzertuak, cache bat onartzea taldeak jendea ekartzen duelako, tipografia handiagoak talde batzuentzat, jaialdi borrokalariak enpresa handien saletan, lema panfletistak difusio pertsonalerako eta ez ideiak bultzatzeko, laguntasuna eta fama jotzeko irizpide gisa, talde batean jotzeagatik militantziaren beste esparruetatik libratzen zarela pentsatzea, kotxe bat baino gehiago balio duten anpliak, teloneroak, kolektiboan marroi bat ez egitea entsegua duzulako, eztabaidak kontzertuetarako materiala uzteko... Hori da gaur egungo errealitatea, musikariaren, antolatzaileen eta hartzaileen aldetik. Eta zaila da hauetaz jabetzea, balio kapitalistak oso barneraturik baitaude.

Adibidez, deigarria da zeinen erroturik dauden lehiaketak zirkuitu musikal borrokalarietan. Hala, seguruenik, musikari gazteak modu eraikitzailean bultzatu nahi dira, batzuetan meritukraziaz. Ordea, elkartasun politikoa kaltetu eta lehia eta indibidualtasuna sustatzen dute.

Ezinezkoa da horrela atzean dagoe-
na baloratzea. Alde estetikoaren mezua-
ren gaintik baloratze dute epaileek.
Edo sare sozialean eskatu dizutelako
bozkatzea. Hasten ari diren ban-
dentzat sari gisa ikusi daitekeena,
benetan, hierarkizazio izugarria da.

Balio kapitalistek kutsu patriarkar
eta autoritarioa daramate giltza-
pean, gaur egungo korrante politiko

«Hasten ari diren bandentzat sari gisa ikusi daitekeena, benetan, izugarrizko hierarkizazioa da»

eta kulturaletan kalte handia egiten
dutenak. Beraz, geroz eta pribilegio
gehiago, bidea errazago. Ikuspuntu
soziologikotik, bertako musika talde
edo subjektu kultural borrokalari es-
tandarra, gizon, zuri, heterosexual,
betidanik bertako, eta arazo ekono-
miko handirik gabekoa izanen da.
Inguruan ditugun pribilegioen lagin
areagotua; egunerokotasun militan-
tean kapa sozial gehiagotara heltze-
ko ezintasun areagotua (ez ahaztu
kontrakultura kontraboterea sozia-
lizatzeko ardatza dela). Gudariaren
itxura faltsu hori, nerd-aren anti-
tesia, musikan islatzen da (indarra,
biolentzia, oldarra...) beldurraren
falta gisa ulertuz eta maskulinitate
hegemonikoarekin lotuz. Modu hon-
etan, soilik kapa sozial pribilegia-
tuak kontuan hartuz, zaila dirudi
musika borrokalari iraultza egitea
(orokorrean bezain beste). Hasie-
rako autokritikari gehitzen zaio sor-
kuntza kulturala denontzako tresna
eskuragarri eta askatasun soziale-
rako eta autogestiorako baliabide
gisa ulertzea, eta ez nahi burges eta
hedonista gisa.

KONTRAKULTURA IRAULTZAILEA- REN ERRONKAK

Azken hamarkadan kulturaren ikus-
puntu militante konprometitua
beherantz egin du, jendartearen
desideologizazioarekin eta kultu-

raren krisiarekin batera, burbuila-
ren eztearen testuinguruak eta
Internetak eta teknologia berriek
inposatzen duten aldaketek sus-
tatuta. Erroka berrien olatua eta
gero (Musikherria, Audio 2004...) h-
auk ez zuten kuajatu eta distri-
buidoraren irudia desgastatu egin da
sare horiek galduta. Birpentsatzea
eta bultzada berria behar dira. Esze-
natoki aldaketak aukerak eskaintzen
dizkio egokitzen asmatzen duenari;
asmakuntza artistikoetara heltzeko
demokratizazioak autogestio kultu-
ra alternatiba erreal gisa desgetizatu
eta ikustarazteko balio dezake. Dis-
tribuidorak produkzio prozesuaren
gehiengoa egitearen eskemak erren-
tagarritasuna eta zentzua galtzen
du, baina elkar-eragiteko era berriak

agertzen dira; trukea eta mikro-la-
guntzak, sortzaile kulturelek auto-
gestioan aurrerapauso bat ematea
eskatzen dutenak, ez era individuali-
zatuan eta atomizatuan, kolaborazio
sareak sortzen baizik.

Hori guztia desagertuko da espa-
zio eta borroka alternatiboen babe-
sik ez bada, kultura alternatiboaren
aldeko apustua eginez. Baina beha-
rrezkoa da kulturarekiko irizpide
politikoak eztabaidatu eta definitze-
a, ez arbitrarioak eta ideiekiko
koherenteak. Horrela, irabazi-asmo-
rako alde baten zein bestearen inpo-
sizioak saihestuko dira (gehiegizko
ordainketarik ez baina 20.000 euro
bankuan dituzten jardun politiko-
rik gabeko gazte asanbladak ere ez).
Horregatik, eragile kulturelek haien
irizpideak finkatu behar dituzte
egoeraren eta helburu politikoen
diagnostikoa egin eta gero. Aurrera
egin nahi bada, pauso garrantzitsua
eragile kultural antikomertzialak
kohesionatzea izango da, haien oi-
narriak eta jarduna errebindikatzea
publikoki eta ekitaldi antolatzaile-
kiko. Prozesu honetan ezin da inoiz
gardentasun ariketa ahaztu, ezinbes-
tekoa dena ez soilik gehiegizko ira-
baziak ekiditeko edo horren kont-
ziente izateko, baizik eta kultura
sortzeak suposatzen duen prozesua
eta esfortzua kanpora begira ezagut-
zera emateko.

Azkenik, autogestio integralaren
iniziatibetan ezin da kultura ahaztu;
gure bizitzetako oinarritzko esparru
gisa, tresnak bultzatu behar ditugu
kultura sortu, zabaldu eta kontsu-
mitzeko, gure baloreekin lotuta.

Kontraboterearen parte izanik
denon ardura da kontrakultura erai-
kitzea; kultura askea babestea bo-
rroka kontrakultural askatzailearen
esperientzia hurbilenetatik, apustu
partzialik gabe eta babes hori ez
erabiliz enpresa kultural afinetan
bihurtzeko. Kapitalismoa ez delako
kapitalismo light-arekin borrokat-
zen, autogestioaren irudi faltsuare-
kin demokrazia zeroarentzako eta
askatasunaren ilusio faltsuarentzako
gehigarri perfektua dena.



ikusteko, bizitzeko

www.hamaika.eus

Hamaika




IRUÑA TALDEA

«FOLKLOREA MAITE DUGU, ETA JENDE GEHIAGOK MAITATZEA NAHI DUGU»

Iruñean bizi bazara Iruña Taldea ezagutuko duzu seguruenik eta, ezagutzen ez baduzu, izan seguru noizbait entzun edo ikusi dituzula, gehienetan Alde Zaharreko kalei bizia ematen baina, baita ere, Euskal Herriko herri aunitzetan. Dantza taldea eta fanfarrea dituzte eta lokala San Lorentzo kalean daukate. Paula García eta

Nerea Eugui dira taldea osatzen duten kideetako bi. García fanfarrean jotzen du eta Euguik dantza taldean hartzen du parte. Zein egoera bizi du folkloreak? Noraino dago loturik folklorea tradizioekin? Tradizioak aldatu behar dira? Zeintzuk dira horretarako trabak? Erantzunak, bi kideei egindako elkarrizketan.



Ezkerrean Nerea Eugui eta, eskuinean, Mexikotik Skype bidez, Paula García GAIZKA AZKETA



Zergatik sartu zineten Iruña Taldean?

García: Nik akordeoia jotzen dut eta Musika Eskolako azken urtean nengoenean banekien hura bukatzean seguruenik instrumentua utziko nuela, baina ez nuen nahi. Nire irakasleak baja hartu eta etorri zen irakasle berri batek, Xabik, Iruña Taldean sartzera animatu ninduen; hark Iruña Taldean jotzen zuen. Baietz esan nion.

Eugui: Nik betidanik gustuko izan ditut euskal dantzak eta Lehen Hezkuntzan aritu nintzen baina gero alde batera utzi nituen. Kuadrillako hainbat Iruña Taldean zeuden eta sartzeko esan zidaten, gustatuko zitzaidala. Kasu egin eta bertan jarraitzen dut dantzan gaur egun.

Zerrek ezberdintzen du Iruña Taldea Iruñerriko gainontzeko musika eta dantza taldeetatik?

García: Ez dut uste ezberdintasun handiak daudenik Iruñerriko taldeen artean, kasu konkreturen bat kenduta. Guk sekulako giroa daukagu, oso ongi pasatzen dugu.

Eugui: Bai bai, nahiko izaera eta joera antzekoak ditugu Iruñerriko taldeok. Horren adibide da bat «de capa caída» dagoenean besteetan ere jaitsiera hori nabari dela. Bestalde, Iruña Taldeak beti izan du kalean

egoteko grina, eta bertako kultura eta folklorea kalean presente egoteko borrokan jardun izan da, esango nuke baita era militantean ere.

García: «Oso zaila da kultura eginez bizitzea, eta zailagoa oraindik euskal kultura eginez»

Kulturarekin negozioa egiten dutenak badira. Nolako da Iruña Taldea zentzu horretan?

Eugui: Nik uste talde gehienok emanaldi aunitz kobratu gabe egiten ditugula. Kalejiretan eta adibidez gehien ateratzen garenok Muthiko, Ortzadar eta gu gara, hein batean lokala Alde Zaharrean daukagulako. Bestalde, askotan herritatik gonbidapenak heltzen zaizkigu, janiariaren eta lotarako lekuaren truke bertaratzeko. Oraindik ordaintzen da, baina gero eta gutxiago uste dut, ordaintzen den kasuetan. Eta, berez, emanaldiak ez dira garesti kobratzen suposatzen duten lana kontutan harturik.

Eta, adibidez, dantzatik bizitzeko eskubidea egon beharko litzatekeela uste duzue?

Eugui: Nik uste aukera egon beharko litzatekeela, baina nik ez dut hori nahi. Gustura nago nire lanbidearekin baina pila bat maite dut euskal folklorea, eta Iruña Taldeak nahi horiek betetzeko aukera ematen dit. Neretzat militantzia da hein handi batean, beste pertsona batzuk antolakundetan edo militatzen duten bezala: bilerak, entseguak, ardurak, eta baita disfrutatzeke ere. Bere bizi profesiotzat hau nahi duenak aukera hori izan ditzakeela uste dut argi badauka.

García: Nik egia esan hori momentu honetan nahiko utopikoa ikusten dut. Oso zaila da kultura eginez bizitzea, eta zailagoa oraindik euskal kultura eginez. Polita izango litzateke baina...

Ia ia ez dago Iruña Taldea gabeko Iruñeko jairik. Nola azaldu daiteke fenomeno hau?

García: Jatorrenak garelako!

Eugui: Iruña Taldea barruan emanaldi gehien dituen fanfarrea da. Orain baliteke gutxiago izatea, baina aurreko urtetan ia astebururo zeukatzen emanaldia. Azken batean Iruñeak hurbileko fanfarretzat dauka eta badaki beti daudela esku bat botatzeko prest. Gainera, egiten diren fabore horiek gero baloratzen direla uste dut eta bueltan datoz,

jada diruaren truke nonbaiten jotzeko eskatuz edo.

García: Bai, baina beno, dantza taldeak orain «de capa caída» baldin badaude fanfarreak askoz gehiago. Eta azken batean hau sustengatzen duten pertsonak hau maite dutenak dira, hau egiten disfrutatzen dutenak. Bestela ezinezkoa izango litzateke.

Eugui: Guk hilabetean behin karrikadantzak egiten ditugu eta hori da, maite dugulako egiten dugu, etekin pribatua bilatu gabe eta zure «lana» inorentzako etekin pribatu bihurtu gabe. Maite dugu, eta jende gehiagok maitatzea nahi dugu.

Mexikon erasmus egiten zaude-la baliatuz García, Iruña Taldeak interkanbioren bat egitea posible ikusten duzu bertako talderen batekin?

García: Hilabete hauetan Mexikoz maitemindu naiz eta uste dut oso aberasgarria izango litzatekeela bi kulturentzat bestea ezagutzea. Eta, besterik gabe, Mexikora bueltatzeko beste eskusa bat izango litzateke.

Eugui: Gainera euskal etxeena berezia da ez? Herri bat bestetik hain urrun egonik, eta Euskal Herria hain txikia izanik, Mexikoko jendea bertako euskal etxe batera hurbiltzea euskal dantzak egitera eta haien kultura ez den beste kultura hain urrun bat ezagutzera. Adibidez, Argentinan dagoen Iruña Taldeko batek komentatzen dit bertako euskal etxean kontu aunitz antolatzen dituztela, kantu-afariak esate baterako. Eta bertako dantza taldean jende asko dago sartuta.

Eta zer uste dute Mexikon hemen, Euskal Herrian, entzuten eta kantatzen dugun musika mexikarrak?

García: Esan nien. Euskal Herrian kantu mexikar pila abesten direla! Euskal Herrian musika mexikarra egiten duen talderen bat jarri nien, Zopilotes Txirriaos tartean, baina ez zituzten ezagutzen. Eta Zopilote Mexikoko txori bat dela kontatu zidaten. Nik, ordea, jarri zizkidaten

Fanfarrea Itzaltzuko bestetan IRUNATALDEAEUSKALKULTURELKARTEA.BLOGSPOT.COM



kantu mexikar asko ezagutzen nien. Hala ere, reggaeton eta 'pun pun pun' musikarekin aski dutela dirudi.

Eugui: «Matxismoa mugiezina dirudi baina gero eta gehiago dira emakumeok dena dantzatu dezakegula uste dutenak»

Iruñera bueltatuz, nola ikusten duzue emakumearen papera testuinguru kulturean?

Eugui: Dantzari dagokionez pil-pilean dagoen gaia da. Matxismoa mugiezina dirudi baina gero eta gehiago dira emakumeok dena dantzatu dezakegula uste dutenak. Azken finean, gizona ez duela deus berezirik soilik haiek dantza batzuk dantzatu ahal izateko. Aldaketa hau musika taldeetan nabaritzen ari da gutxika, baina baita herrietan ere: Dantzari Dantza jada emakumeek dantzatzeko dute zenbait lekutan, Luzaiden nahiz eta oso apurka-apurka hasi dira aldaketak nabaritzen eta dantza taldeak bakoitza mundu bat dira. Batzuek ibilbide hau aspaldi hasi zuten, beste batzuk duela gutxi

eta badira oraindik mugitu ez direnak, tradizioaren aitzakipean. Beste ezaugarri batzuen artean indarra eta dinamismoa gizonarekin lotzen duten azken hauek hainbat dantza emakumeoi debekatzen dizkigute. «Florero», frágil eta sensible nahi gaituzte.

Eta, dantzen esparrua alde batera utziz, musikan ere hain argi ikusten da?

García: Printzipioz ez baina tentuz aztertzen baduzu bai, beti daude horrelakoak. Orokorrean ez da dantzan bezala nabaritzen, gutxienez Iruña Taldearen fanfarrearen kasuan.

Eugui: Bai bai, guztiz ados. Azken batean dantzetan herrietako dantza tradizionalak birproduzitzen ari zara, eta lotuagoa egonen da aldaketa testuinguru orokorraren aldaketari, nahiz eta hori aldatzea zure esku ere egon. Aldaketa horiek herrietan aurrera eramateko traba handienetako bat, herrietako batzuek dantza horren aldaketak herrian liskarrak eta elkarbizitza arazoak ekarri ditzaketela esaten dutela da, baina hori normala da, gertatu behar den zerbait da, matxismoa ez baita erraz errenditzen. Bestalde, kultura, tradizioa, baztertzaileria bada, jendartearen zati bat onartzen ez badu, galduko da, herriak ez baitu bere sentituko.

BEHAR 4

BEHAR Z

#AHOTSArekinBATegin // // // // // Hazte accionista por 60€ al año



ahötsa

Pablo

KONTRAKULTURA IRUÑERRIA GLOBALIZATUAN

Kapitalismoaren ibilbide historikoa gorabehera eta birmoldaketaz beterik dago, geroz eta indar gehiagorekin eta oldarkorrago bueltatzeko. Thatcher eta Reaganek aldarrikatutako olatu neoliberalaren ondoren, XXI. mendera heltzen gara. Eredu politikoe-kiko paraleloki, Kapitalak abiadura bizian egiten du aurrera bizitza modernoaren iraultza berriari esker: internet.

kulturaren merkantilizazioaz arduratzen diren enpresak inflexio puntuan daude, eroriz. Produktu kulturalak eskuratzeko ordaindu behar zen lehen. Orain, klik batera duzu doako deskarga. Hau industria kulturalaren enpresa handien itxierarekin materializatuko da. Amore ematetik urrun, indartsuenak birmoldatu eta haien merkaturia hedatuko dute, mundua globalizatuz.

Nola eragiten du honek kontrakulturari? Zoko kontrakulturalak ez dute birmoldatzea lortzen eta indarra galdu dute. Distribuidora antikomertzialen itxiera, inguru kontrakulturaletan jaiotako espazioen merkantilizazioa, ia ez landutako goi mailako kontradikzioak eta, bereziki, espazio autogestionatuek sortutako baldintzak iraunkorki Kapitalaren eskuetan bukatzea. Horiek dira gaur egungo testuinguruak dakartzan ondorioak.

Ondorioz, beharrezkoa da gertaera modernoa den globalizazio kulturala aztertzea, munduaren murriztea ekartzen duena. Interneterako sarbi-

de orokortuak, baita langile auzo prekarieztatuetan, dudarik gabe, klase borrokan atzetik datorren «paliza» supra-hegemonizatzen lagundu du. Adibidez, kulturaren sozializazio eta mantentze prozesuan protagonistak diren masa hedabiderik googleatuenak eta sinesgarritasun gehien ematen dietenak betiko Ka-



pitalaren bermatzaile eta morroiak dira. Nola jokatu behar dute espazio kontrakultural eta antikomertzialek hauek suntsitzera dedikatzen den munduan? Sistemak ahalegin guztiak jarri ditu honi aurre egiteko jaiotako guztiarekin bukatzeko, bai hauei existentzia ezinezkoa eginez, bai hauek xurgatuz.

Espazio bat kontrakulturala izateko, antikomertziala izan behar da? Egin dezagun ariketa dialektiko txiki bat. Egi batetik abiatzen gara: espazio komertzialek hauek mantentzen dituen kultura birproduzitzen laguntzen dute. Eman diezaigun buelta tortillari. Praktikoki kontsekuentea den espazio antikomertzial bat ez doa kultura baten ixa ezau-

garrien aurka. Ulertzen du funtzionamenduaren eredu ekonomikoa aldatu behar dela kultura aldatzeko, biak elkarreaginean baitaude. Ondorioz, espazio komertzial bat kontrakulturala izan daiteke? Helburua izan ditzake, kultura baten hainbat ezaugarrien aurka joan daiteke: matxismoa, individualismoa, errealitate erreazionarioenak... Ordea, espazio komertzial honek Kapitalismoa izango du oinarri. Beraz, ezin ditu guztiak batera landu, adibidez, globalizazio kulturalak ekarritako funtsezko arazoa: «paliza» eta klase kontzientziaren galera. Espazio baten langile klase kontzientzia eskuratzeko duenean lan eredu aldutzen da, autogestioaren bidea hartuz eta Sistema Kapitalistaren kultura borrokatzeko kapazitateak lortuz.

Idea hauek Iruñerriko eszenatokia bueltatu behar dira, baliabidea xedearekin nahasten ari baita. Borroka finantzatzeko txoznak izatea ez da helburua, helburua borroka irabaztea da. Gaztetxeak izatea ez da helburua, borroka garatzeko bidea da. Banaketa antikomertzialak izatea ez da helburua, baliabideak dira teoria eramateko borroka sortu eta enfokatzeko. Espazio antikomertzialek babesa behar dute barrutik zein kanpotik. Distribuidora, eragile eta gaztetxeen ekiteko eta kolpatzeko gakoa elkarlanean datza, hausten ari den Iruñerrian. Momentu horretan ariko gara Kapitalari hortzak erakusten eta hau borrokatzeko testuingurua sortzen.


Karlos Andi6n eta Edurne Gaztelu, Sorginkaleko kideak

SORGINKALE, KAPITALISMOTIK AT KULTURA SORGINDUZ

Argazkiak: ITSASNE EZKERRO

Testua: GAIZKA AZKETA

Sorginkaleren liburutegi libertarioa dekoratzeko paretan egindako marrazkia



Sorgin ehizak ez zituen sorgin guztiak hiltzea lortu. Badira oraindik, Zizur inguruan, hainbat bizirik. Karlos Andi6n eta Edurne Gaztelu horietako bi dira, Sorginkaleko kideak biak. Letra eta akordez inguraturik egoten dira hauek askatu nahian, hauek sortu nahian, hauek kutsatu nahian eta, zer gehiago nahian?

Sorginkale 2000 urtean jaio zen. Adina dela eta elkarrizketatuek ez zuten hasiera bizi izan. Garai hartan Zizurko Gaztetxea ez zen existitzen eta Gazte Asanbladatik ateratako ideia izan zen Sorginkale. Banatzaile antikomertziala garatzeko gogoak zeuden. Andionek dienez, «Euskal Herrian horrelako esperientziak garatzen ari ziren». Proiektu horren barruan baziren beste batzuk liburutegian zentratu nahi zirenak, ohiko liburutegietan aurkitzen ez zenituen liburuekin.

2003-2004 urtean, bilerak kalean egite-tik gaur egun Sorginkalek daukan lokalera pasatu ziren, Rocketxearen alboan dagoena, Zizur Nagusiko herrian. Rocketxea musika taldeentzako entsegu gela autogestionatua

Liburuz beterik dauka Sorginkalek liburutegi libertarioa, edonork elikatu eta erabili dezakeena



da, zeinetatik Zizurko musika talde kontrakultural gehienak pasatu diren.

Musika lantzen duen kolektiboa izanik, kontzerturen bat antolatuzuten lehen urtetan eta 2004ean antolatu zuen bere lehenengo Sorgin Gaua, urtez urte hazten joan den jaialdia.

Zeuzkaten beharrak asetzeko materiala lortzen joan ziren gutxika, hasiera batean Iruñerrian garai hartan zegoen Eguzki Banaketatik, eta Sorginkale hazten joan zen.

Asko dira garai hartako testu-gurua gaur egungoarekin konparatuz izan diren aldaketak. Gazteluren iritzi, modan dagoen jendearen estilo musikala aldatu egin da, hori urte tarte nahiko txiki bakoitzean gertatzen den fenomeno izanik. Bestalde, irakurtzeko jendearen joerak ere urte tarte txiki bakoitzean aldatzen direla dio kolektiboak, bi aldaketa horiek nahiko superfizialak

direla azpimarratuz. Bestalde, aldaketa sakonen artean koiunturalagoak direnak sartzen dituzte: «krisi ekonomikoaren ondorioz salmentak jaitsi dira, baita kultura alternatiboan ere». Eta, bestalde, aldaketa estrukturalak haien esparruan ere nabari dituztela diote: «teknologia berriek, internetak... kulturaren mundua eraldatu du. Kontsumo erdua adibidez aldatu da, jendeak dena deskargatzen baitu».

IZENA, IZANA, EZINA

Sorginkale ez zen gaur egun dena izateko helburuarekin jaio. Hasieran ACI (Asamblea Contra Informativa) Sorginkale zuen izena, eta bi proiektu ezberdinen batuketarekin jaio zen. Ordea, era «oso positiboan» eraldatzen joan zen haien ustez gaur egungoa izatera heltzeko.

Diotenez, «seguru hasieran ez zutela espero horrelako Sorgin Gauak antolatuko zirenik eta bertan estatu

osoko 20-30 banatzaile antikomertzial elkartuko zirenik, hura ere eztabaidarako espazio gisa erabiliz».

Gaztelu: «modan dagoen estilo musikala aldatzea urte tarte nahiko txiki bakoitzean gertatzen den fenomeno da»

Sorginkale gaur egun jarraitzen du banatzaile antikomertziala izaten eta liburutegi libertarioa martxan dago ere. Gazteluren ustez, ordea, liburutegiak lehen zeukan mugimendua galdu du, «nahiko itzalita dago, eta lan hori berrartzea ezinbestekoa da». Urte eta erdiko geldialdia izan zuten edizio eta distribuzio lanari dagokionez, hainbat kausen ondorioz: frustrazioa, nekea, saturazioa... Haien hitzetan, «Sorginkaleko ki-



deek beste proiektu batzuetan parte-hartzen dute ere eta guzti horrek denbora asko eskatzen digu guztioi».

Duela hainbat hilabetetatik distribuzio eta edizio lana berreskuratzen joan dira: «liburu eta diskoen bi edizio eta hainbat koedizio kaleratu ditugu azken hilabeteotan, distribuzio lanak berrartzearekin batera eta, bestalde, inoiz kaleratu ez dugun katalogo bat prestatzen ari gara».

Andionek inguru hurbilenean eragiteko kolektibo politiko gisa du Sorginkale, nahiz eta ildo politiko guztiz itxia ez duen, antikapitalismoan oinarrituz hainbat ideologia barnebilduz. Lan ildo nagusia kultura du, baina badira ukitzen dituzten beste hainbat ildo: jaiak, errepresioa, Nafarroa mailako gatazka koiunturalak...

EGOKITZEKO BEHARRA

80-90 hamarkadetan paradigma aldatuta izan zen eta kontrakultura

gazteriaren kontzientzia iraultzaile-rako bide nagusia zen. Hau, orokorrean, zeuden espazio autonomoen bidez eman zen, gaztetxeak esate baterako.

«Gaur egun banatzaile antikomertziala, formatu honetan, agortutako tresna bat dela uste dut», dio Andionek, kontsumo bide berriak mahai gainean jarriz. Bestalde, behin eta berriz salatzen dute alternatibotzat ditugun espazio askok ere ezaugarri hauek bereganatu dituztela: «kontrakulturaren profesionalizazioa eta itxurakeria, eduki iraultzaileen falta... jaiaren prostituzioa azken finean». Hori gertatzeko kausa nagusien artean sumatzen duten klase kontzientzia, eztabaida politiko eta ondorio teorikoen falta dago. Euskal Herri mailan badira horretaz konturatu eta horri buelta emateko lanketa teorikoak egiten ari direnak. Esate baterako, Iruñerrian, Gazte Langileok eragilea.



Biniloak ere eskuratu daitezke Sorginkaleren lokalean

Karlos Andi6n eta Edurne Gaztelu, Sorginkaleko kideak, hizketan, daukaten lokalaren kanpoaldean



Ateratako azken diskak sarrean aurkitu daitezke

HALA NOLA

Sorginkalen ez dute dekalogo finkorik jaialdi antikomertzialek hala-beharrez izan behar dituzten ezaugarriak zehaztuz. Andionek, ordea, hainbat konpromiso eskatu beharko liratekeela uste du, «antikomertzial etiketa tranpolin gisa» erabili duten talde komertzialen kasuak asko baitirela dio hark.

Autogestioa izango litzateke ezaugarri horietako bat (diskografika, produktorea eta managerrik gabeko taldeak). Aldaketa koiunturalek enpresa gisa funtzionatzen duten

Andi6n: «asko dira antikomertzial etiketa tranpolin gisa erabili eta ondoren enpresa bihurtu diren musika taldeak»

taldeen ezaugarriak ere aldatu dituztela kontuan hartu behar da mugak jartzeko garaian. Kontuan hartzen duten beste ezaugarri bat konpromiso politikoa da, praktikoa zein

diskurtsiboa. Eta, adibidez, Sorgin Gaua antolatzeke garaian, aniztasuna kontuan hartzen dute taldeak ekartzeko garaian. Eszenatoki antikomertzialaren hastapenetan punka eta rocka ziren nagusi eta hori aldatzen saiatzen dira gaur egun, getifikatu ez daitezke.

Irabazi asmoa daukaten jaialdieki dagokienez irabazi asmo pribatua daukatenean guztiz aurka daude. Ordea, borroka politikoak finantzatzeko beharra badago jaialdi baten bidez finantzatzea egokia ikusten dute. Bestalde, sistemak gero eta gehiago erabiltzen ditu neurri ekonomikoak errepresio gisa eta kasu horretan ere egokia ikusten dute jaialdien bidez dirua lortzea.

GURPIL ZOROA

Kontzeptua hau zerbaitek zerbaitek ekartzen duenean eta beste horrek hasierakoa ekartzen duenean erabiltzen da, gorpila inoiz ez bukatuz. Hori da Andionen arabera enpresa gisa lan egiten duten taldeen aldeko apustua egiten denean, baita alternatiboaren etiketa jartzen duten jaialdietan ere, gertatzen dena. Talde



berri ez komertzialen aldeko apustua egiten ez bada hauek ez dute inoiz espazio handirik jendez beteko.

«Iruñean ez dago itxurakeriaren atzean mozorrotutako Viña Rock bezalako jaialdi kapitalista erraldoirik, baina badira adibide txikiagoak, eta gero eta gehiago», dio Andionek, adibideen artean Iruña Rock aipatuz.

Lehiaketei kritika handia egiten diete: «Zeintzuk dira lehiaketetan bere burua aurkeztera beharturik ikusten dutenak? Hor daukazu erantzuna».

SORGIN GAUA

Zutik dirau gaur egun jaialdiak. Aurrekoan belaunaldi erreleboa egon zen eta aspaldidanik lehena izan zen kide berriak izan zirela orain arte egon direnekin lanean. Bestalde, Gazteluk izandako zailtasunak azpimarratu ditu: «ni ez nengoen, eta hainbat kide ezta; gure bizitzak aurrera doaz eta batzuei beste lehen-tasan batzuk suertatzen zaizkie; hala ere, aurreko Sorgin Gauaren balorzio ona egin genuen orokorrean».

Sorgin Gauaren 10. edizioan manifestu antikomertziala egin zuten, duela hiruzpalau urte, 30 musika taldek eta hainbat eragilek babestu zutena. Manifestu hori gehiago zabaltzea eta praktikara eramatea ezinezkoa egin zitzaizen, ez baitago hori egiten duen mugimendu kohesio-naturik. «Kulturaren eragin eta honen panorama eraldatzeko era zabalean ekiteko kohesio politikoa faltan bo-

tatzen dugu», dio Andionek.

Irabaziei dagokienez, hainbat dira jarri dituzten neurriak. Esate baterako, irabazten den diru garbiaren ehuneko 50a taldeek eramaten dute eta, beste ehuneko 50a, antolakuntzak, urtean zehar egiten duen lana finantzatu ahal izateko. Bestalde, taldeetako musikariei egiten zaien banaketa portzentuak berdina da,

Andión: «kulturaren eragin eta honen panorama eraldatzeko era zabalean ekiteko kohesio politikoa faltan botatzen dugu»

nahiz eta azken neurri hori gehiago findu beharko litzatekeela onartzen duten, talde batek kide gehiago badiu gastu gehiago dituelako, bai, baina badaudelako beste zenbat faktore taldearen gastuak handitzen dituztenak.

Apiril hasten dira hurrengo edizioa prestatzen eta hurrengoa ia prest daukate jada. Hasieran musika talde lista zabal bat egiten dute eta gero murrizten doaz. Azaroaren 18an izango da. Banatzaileen azokari eta eztabaidei garrantzi handia eman nahi diete aurten: «borroka eta aisia bultzatzen eta bateratzen saiatzen gara, adibidez egunean zehar ere eztabaidak eta hitzaldiak antolatuz. Oraingoz, jende gehiago agerzen da aisialdiaren esparrura beti.



EN TXOZ NATU ZIZUR MATXI NATU!

34
URTE

ZIZURKO JAIK 2017 IRAILA 13-17 SEPTIEMBRE

TXOZNETAN ATERATAKO ETEKINAK KOLEKTIBOEN BORROKA
EZBERDINAK FINANTZATZEKO ERABILIKO DIRA

LOS BENEFICIOS DE ESTAS TXOZNAS IRÁN DESTINADOS A
FINANCIAR LAS LUCHAS DE LOS COLECTIVOS DE ZIZUR

13 ASTEAZKENA
MIÉRCOLES

GAZTE EGUNA

11:30 TXUPINAZO ALTERNATIBOA
Altsasuko materiala salgai egongo da

13:00 ELKARTASUN TOPA

14:00 GAZTE BAZKARIA
txoznetan / txartelak salgai
Esparrun eta Garnatxan

17:00 GAZTE JOKOAK + KARAOKE

20:00 TXOZNETAN IREKIERA
EKITALDIA

21:00 KONTZERTUAK

REVIVERB LIVE ZIZUR

TTUN TTUN BRIGADE
EUZKO ELEKTROPOP

THE LADJ'S BARAÑAIN

14 OSTEGUNA
JUEVES

INTERNACIONALISTA EGUNA

21:00 KONTZERTUAK

EZURTE ZIZUR HXC

JO TA PUNK ZIZURKO ZARATA

ROJO VIVO
REGGAE BAND IRUÑERRIA

DJ MAJARIS IRUÑEA

15 OSTIRALA
VIERNES

AHATEAREN EGUNA

DENOK AHATEAREN EGUNERA

17:00 LUZIANO Jai Batzordeak antolatua

20:00 IRUINDAROCK ELEKTROTCHARANGA
Jai Batzordeak antolatua

22:00 KONTZERTUAK

**EL SONIDO DE LA
METRALLA** IRUÑEA PUNKROCK

SAN BLAS POSSE MADRIL SKA

SMOG BARAÑAIN METAL

16 LARUNBATA
SABADO

ELKARTASUN EGUNA

15:00 ELKARTASUN BAZKARIA ZIKIRO
Eskeletan / izena eman Garnatxan
Altsasuko materiala salgai egongo da

17:00 NAHIAK NAHI, MAIALEN KANTA
abeslariak

22:00 KONTZERTUAK

RINKON RECORDS
ZIZUR RAP

EUSKABARET
IRUÑERRIA ESPEKTAKULOIA

**TXINO SOUND
SYSTEM & IZURA**
ZIZUR ELEKTROFUNK

COLCHONADA
EGUN SENTIAN

17 IGANDEA
DOMINGO

TXIKIEN EGUNA

17:30 HAURRENTZAKO ANIMAZIOA
ETA TXOKOLATADA



TXOZNA BATZORDEA



OHOLTZA GAINEAN

IRUÑERRIKO MUSIKA TALDEEN GIDA

.....
AFU
BARAÑAIN



ZOROAK HEGAZ GOAZ DISKAKO ARGAZKI BAT

Herriko aurreko gaztetxetik eza- gutzen ziren hainbat gazte bildu eta Afujeroa deitzen zuten lokalean hasi ziren entsaiatzen. Musika estilo anitza daukate: reggae, ska, cumbia... Diskak: Aprendamos a desaprender (2010), LKT (2012) eta Zoroak Hegaz Goaz (2015).

.....
SKARMENTU
IRUÑEA



AZPILAGAÑAKO 2017KO JAIK GIROTZEN

Skarmentu Iruñeko gazte musika talde bat da. Estiloari dagokionez, egiten duten musika ska-rock dela diote. Taula gainera, ahotsaz aparte, gutxienez, bateria, bi kitarra, baxua, tronpeta eta tronboia igotzen dituzte auzo eta herrietako festa eta jaialdietan jendea dantzan jartzeko.

.....
LAS TIPEX
SANDUZELAI



LAS TIPEX TALDEKO ZORTZI KIDEAK

2014 urtean sortu zuten 8 emakumek Las Tipex musika taldea, Sanduzelai auzoan. Punk kontzeptuala da haien estiloa, musika, eszenografia eta interpretazioaren bidez zuzenezko ikaragarri bat sortuz sistemak inposatzen dituen estereotipoak apurtzea helburu.

.....
EZURTE
ZIZUR / GARES



NAFARROAKO ARLEGUI HERRIAN, 2016KO IRAILAN

Zizur eta Garesko hainbat gaztek osatzen dute Ezurte Hardcore taldea. Mario (bateria), Txabo (baxua), Murtz (kitarra), Unai (kitarra) eta Alf (ahotsa) da boskotea, taldeari akordeak jarri eta hau aurrera ateratzen dutenak. 'Erantzunaren bide luzean' da haien lehen diska, aurten kaleratutakoa.

.....
ROJO VIVO REGGAE
IRUÑERRIA



NAFARROAKO UNIBERTSITATE KARPAN, MILAKA PERTSONEN AURREAN

Reggae, dancehall, ska, dub eta beste hainbat estilo erabiltzen dituen taldea da Rojo Vivo Reggae Band, jada 2007 urtetik jotzen daramana. Gaur egun hauek osatzen dute: Zyro (ahotsa), Jokin (bateria), Pipa (kitarra), Borjamon (baxua), Elsa (ahotsa), Asier (bara tronboia) Markel (tronpeta) y Mikel (saxoa).

.....
THE TRIKITEENS
IRUÑERRIA



OHOLTZA GAINEAN, BETI OHOLTZATIK BEHARAKOekin KONEKTATUZ

The Trikiteens plaza bat dantzan jartzen duen talde horietako bat da. Orokorrean, jendeak dakizkien beste taldeen kanta jotzen dituzte. Iruñerriko txoko ezberdinetakoak dira erromeriaren partaideak: Sebas (kitarra), Urko (ahotsa), Lohitzune (soinu txikia), Koldo (baxua), Asier (bateria) eta Amaia (ahotsa).

.....

EL SONIDO DE LA METRALLA

IRUÑEA




EL SONIDO DE LA METRALLAREN LOGOAREKIN EGINDAKO MURALA

«Punk-Rock de la vieja Iruñea». Hala dio beste talde batzuetan egondako hainbat musikari elkartzekoan 2014ean jaiotako taldeak. Diskak: Ningún títere con cabeza (2014) eta Nada más cerca de la realidad (2017).

.....

IRUÑERRIA JAMAICA CLASH

IRUÑEA



BANDERA NAFARRA ETA JAMAIKARRAK DITUEN MUSIKA PROIEKTUAREN LOGOA

Musika jamaikarra atsegin baduzu ezin duzu Iruñerria Jamaica Clash galdu. Erritmo jamaikarrak Nafarroako jai eta jaialdietako zirrikituetatik sartzen ari dira azken aldian proiektu honi esker.

.....

MARIANITZ BLAI

IRUÑEA



MEX & ROLL ERRITMOAK TAULA GAINEAN

Iruña tropikaletik datozela dio Marianitox Blai taldeak. Bost urte baino gehiago daramate elkarrekin eta jotzen duten musika mex & roll gisa definitzen dute: rock & roll, musika mexikarra... Ezin duzu imaginatu? Sartu zaitez haien web orrian: marianitoxblai.eus

.....

JOTAPUNK

ZIZUR



LO QUE HAY DETRAS DE LO QUE OCURRE DISKAKO IRUDIA

Aurten, 2017 urtean, grabatu dute haien lehen diska: *Lo Que Hay Detrás De Lo Que Ocurre*. Bostkote zizurtarrak punk-rock zarata anti-komertziala egiten du. Musikariak: Martitz (baxua), Goyena (bateria), LePab (kitarra), Alvaro (kitarra) eta Langa (ahotsa).

.....

DESPERDIZIO

BERRIOZAR



BERRIOZARKO JAIETAN TALDEAREN KONTZERTUA

2015 urtean jaio zen, Berriozarren, Desperdizio punk-rock musika taldea. Hau osatzen dutenak: Gaizka (kitarra), Kaba (kitarra), Gorka (baxua), Gabari (bateria) eta Olagüe (ahotsa). Orokorrean, beste taldeen abestiak jotzen dituzten jai eta jaialdietan.

.....

LUR-J

ODERITZ / BURLATA / ...



HERRI SANFERMINETAKO BARATXURIEN PLAZAN

Akier Tollar (ahotsa), Xabi Zabaleta (kitarra), Julen Zeballos (baxua), Beñat Rodrigo (tronpeta), Gaizka Otsoa (tronboia) eta Julen Esparzak (bateria) osatzen dute Luj-J taldea. 2014ean jaiotako taldeak ska-rock doinuak ditu nagusi. Espektakulua, eztarria urratu eta dantzatu nahi? Segi ezazu Luj-J!

.....

THE TITANIANS

IRUÑEA



TALDEKO ZAZPI KIDEETAKO SEI LASTO GAINEAN

Roots Reggae banda da Iruñeko The Titans. Gaur egun, orokorrean, artiste aunitzen Backing Band gisa aritzen dira; zuzenean eta estudioan. Zero Koma Reggae Band proiektuaren jarraipena dira The Titans. Hau osatzen duten kideek beste hainbat proiektuetan parte-hartzen dute aldi berean.

.....

BILUZIK

IRUÑERRIA



KONTZERTUA BUKATU ONDOREN BERTARATUTAKOAK AGURTZEN

Estiloaz, hala diote: «Pop musika maite dutenak, pop musika egiten ez dugula diote. Rock musika gustoko dutenak berdin, beraz poz-pozik irekiko dugu gu geu gure bidea». Taldea osatzen dutenak: Ibai (kitarra), Gorka (kitarra) Pello (bateria + koroak) eta Maialen (abeslaria eta baxua).

.....
RAPEROS DE EMAUS
 BARAÑAIN



EZKERREAN, EMAUSEKORITX ETA, ESQUINEAN, MOISÉS NO DUERME

Hiru kidek osatzen dute Barañaingo hip-hop talderik famatuena: Dodosound (DJ), Moisés No Duerme (ahotsa) eta EmausekoRitx (ahotsa). Haien azken lana, La ley del hambre, The Titianianekin batera egin dute.

.....
BROKEN BROTHERS
 IRUÑERRIA



HAIZEAK ETA METALAK KALEA ZEHARKATZEN DUTENEAN

New Orleansko Brass Bandetatik ekarri dituzte, Nafarroako hiribururaino, funk, gospel eta jazz moderno doinu inprobisatuak. Hamaika kidek osatzen dute Broken Brothers banda, ez dira gutxi.


.....
SKABIDEAN
 IRUÑERRIA



EUSKAL HERRIKO KOSTALDEAN ERE IZAN DA TALDEA

Iruñerriko ska estiloko taldea da Skabidean, 2012 urtean jaioa. Diska bat daukate jada eta bigarrena laister izanen dute prest zabaldu eta ska erritmoekin jendea dantzan jartzeko. Taldearen letra itsaskorrek haien abestiak burutik ezin ateratzea eragiten dute

.....
HERDOIL
 IRUÑERRIA



IPARRA GALDU BARIK DISKAKO LIBURUXKAKO ARGAZKIA

Iruñerriko Punk-Rock panorama iraultzen ari den taldea da Herdoil, punk oil. Indar handiarekin atera dira haien diskarekin: Iparra galdu barik. Taldea osatzen duten kideak Ander, Matxi, Iñigo, Beñat eta Auritz dira, aurretik beste talde batzuetatik pasatutako gazteak.


.....
DEMOKRAZIA ZERO
 ZIZUR



ROKETXEAREN ETA SORGINKALEREN LOKALAREN ATARIAN

Zizur Nagusiko punk hardkore taldea da Demokrazia Zero. Kideak: Aritz (bateria), Gutxo (baxua), Karlos (kitarra) eta Agorreta (ahotsa). 2008an hasi ziren jotzen eta bi diska dituzte: Kapitalismoaren suntsiketeta (2013) eta Si no hay revolución este no es mi baile (2016).

.....
AHUNTZAPE
 MENDILLORRI



BENGALA GORRIA PIZTURIK, AHUNTZAPEREN KONZERTUAN

Mendillorriin jaiotako ska-punk talde antikomertziala dugu Ahuntzape. Urteak dira jada herri eta auzoetako jaietan jotzen hasi zirenetik, mezu aldarrikatzaileekin betez. Orain arte, bi diska grabatu eta zabaldu dituzte: Mozkor eta errebeldeak (2014) eta Jaiio-Kontsumitu-Hil (2016).


.....
BANDA BATXOKI
 TXANTREA



TALDE TXANTREARRAREN HAINBAT KIDE IRUDI MUNTAI BATEAN

2000 urtean sortu zen punk taldea. Partaideak: Gorka (bateria), Fer (kitarra), Bubi (ahotsa), Beramendi (armonika), Albarito (baxua), Kako (ahotsa), Motxilo (kitarra), Saul (ahotsa). Diskak: Bake garaietarako borroka kantak (2010), Zaharra-goak, gaiztoagoak (2006) eta Jan Goikoa eta Lege Txarra (2005).

.....
ACERA
 IRUÑERRIA



LAUKOTE MUSIKARIA SOFA BATEN GAINEAN

Martin, Eihar, Markel eta Jonex osatzen dute Acera. Goiko argazkian ageri dira laurak. Iruñerriko gazte osaturiko rock talde bat da. Duela hilabete gutxi, 2017ko udan, diska berria kaleratu dute, Iker Piedrafitaren sotoan grabatutakoa eta Iruñerriko Musikari Prekarioak banaketan bidez zabaldutakoa.



hARA

MALIKIAN

hONA

MALIKIAN

Argazkiak: **EKINKLIK**
Testua: **GAIZKA AZKETA**

MUSIKAZ HAMAICA KOLORE



Iruñea anitza isiatu eta aldarrikatzeko 2017ko Sanferminetan egindako Mazedonia Kalejira

Oso anitza da Euskal Herria, eta oso anitza da Iruñea, musika bezain beste. Gaur egungo Euskal Herriko biztanleria 166 herrialde ezberdinetan jaio da; haren mugetatik kanpo jaiotako pertsona kantitateari dagokionez Europako hirugarren herrialdea da. Donostian, esate baterako, 100 hizkuntza daude zentsaturik. Jendar-teak onartzen al du aniztasun horrek aberastu egiten duela eta lekuan lekuko errealitatea osatzen duela? Ez al da ba Euskal Herriko ijitoen kultura euskal kulturaren parte? Ez al da ba euskara, hizkuntza kulturaren ardatzetako bat izanik, Euskal Herriko ijitoen kulturaren parte?

Euskal Herria 11 Kolore (EH11Kolorre) herri ekimena 2012 urteko

abenduan jaio zen, Donostiako San Telmo Museoan aurkeztu zelarik. Musika eta dantza aniztasuna islatzeko errealitate gisa erabili izan dituzte hainbat ekimenetan. Eztabaida eta hausnarketarako tresna gisa aurkeztu ziren eta gizarte eragile nahiz erakunde ororen parte-hartzeari irekiak daude, alor honetan elkarlana sustatuz, baina hasieratik argi izanik ekimenaren helburuak.

Lehenengoa, Euskal Herriko herritar guztien eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna defendatzea, haien jatorria edozein dela ere. Eta nor da euskal herritarra EH11Kolorerentzat? Hala diote: «Euskal Herrian bizi garen pertsona guztiok, bertan edo beste herri batean jaioak izanik ere, euskal herri-

tarrak gara. Hemen jaiotako pertsona oro, beste herri batean bizi arren, Euskal Herria bere herria dela sentitzen duena, hori ere euskal herritarra da». Bigarren helburu nagusia kultur aniztasuna berezko balio gisa babestu eta sustatzea da, joera uniformatzaile eta segregatzaileen aurrean. Hirugarrena, jatorri askotako euskal herritarren arteko topaketa, elkarrekin eta elkarlan esparruen alde egitea, aniztasuna ikustaraziz. Eta, laugarrena, gogoeta elkarriketa eta etengabeko eztabaida euskal gizartean bultzatzea.

Txekun EH11Kolorereko kide da. Dioenez, Iruñean, ekimena aurkeztu zenean hasi ziren lanean eta egiten duten lana bi plano orokorretan kokatzen du: «aniztasunaren

aldarrikapen eta ikustarazte lana eta aniztasunarekin lotutako gaien inguruko gogoeta eta eztabaida». Kanpora begirako lehen ikustarazte lana duela lau urte egin zuten Iruñean, aniztasun egun bat antolatuz. Gogoeta eta eztabaidaren ildoan Iruñean ez dira oraindik murgiltzera heldu. Hala ere, aniztasuna edo honekin lotutako gaiak lantzen edo landu ditzaketen hiriko eragileen mapeoa egin zuten eta bilerak egiten izan dira urte oso bat. «Herri ekimenaren ikuspuntua helarazteko balio izan digu mapeoak eta Iruñeko hainbat eragiletan hausnarketak bultzatu ditugu, ikuspuntu oso ezberdinekin aurkituz aniztasunaren gaian», dio Txekunek. Bere esanetan, «Euskal Herrian ez da inoiz izan EH11Kolo-

Txekun: «Iruñeko hainbat eragiletan hausnarketak bultzatu ditugu, ikuspuntu oso ezberdinekin aurkituz aniztasunaren gaian»

re bezalako eragile bat eta batzuei arraroa egin zaie, beste jatorrietako jendearen eskubideak defendatzetik harago goazelako gure lanketetan».

Musika mundu osoan zehar zabalduko fenomeno anitza izanik, lekuan lekuko kulturei lotutakoa, interesgarria da honen erabilera kultura aniztasunari dagokionez ikustarazte eta aldarrikapen lanketetan.

Hala uste du EH11Kolorek. Hori dela eta, hainbat ekimen antolatu dituzte jada musika aniztasunaren topagune bihurtuz. Esate baterako, 2017ko Sanferminetan Mazedonia Kalejira deitu zuten Iruñeko eta Nafarroako beste hainbat eragilerekin batera, jendetsua eta koloretsua izan zena. Txekunek kalejira horretatik jada bukatu zegoen Altsasuko elkarretaratzetik pasatzean jasotako harre-beroa azpimarratzen du, zeinetan borroken arteko elkartasun eta konplizitateak bat egin zuten.

Hala ere, musika eta folkloreari, aniztasunaren lanketari dagokionez, hainbat arazo ikusten dizkie. Alde batetik, musika gai kolaterala dela dio, hausnarketa nagusiei dagokionez: «garrantzia dela eta



Ikurriña daraman bikote bat Mazedonia Kalejirari bidea irekitzen

momentu honetan eztabaidatu beharreko gaiak beste batzuk dira. Esate baterako: lana, hizkuntzak, erlijioak, emakumearen eskubideak...». Musikari, dantzari eta orokorrean folkloerari garrantzia ez kenduz, baina haiek ekimen bezala daukaten zereginen ikustarazte lanean tresna bat dela argi utziz. Beste arazo bat folklorismoan erortzeko eta jaia jaia egiteagatik ospatzeko arriskua izan daiteke, «aldarrikatzeko asko geratzen denean». Fenomeno hau jada beste hainbat esparrutan nabaritzen hasi da (hainbat hiritako LGTB harrotasunaren egunean esate baterako), kapitalak ez baitu mugarik jartzen ez bazaizkio. Horregatik, dio Txekunek, aniztasunari zentralitatea kendu gabe, hau aldi berean os-

Munduko herri askotako kulturetako jantziak izan ziren Mazedonia Kalejirako protagonistak



patuz eta aldarrikatuz, emakumeek emakume izateagatik sufritzen duten zapalkuntza, klaseen arteko borroka... ezin dira ahaztu.

BEGIRADA ZERUMUGAN

Aurrera begira aniztasunaren jaiak Euskal Herriko herri guztietara hedatzeko helburua jarri dute, elkarrekin ezagutza, aitortpena eta ikustarazte lana aurrera eramateko.

Badira jaiak aldarrikapenekin nahastu behar ez direla diotenak eta horientzat mezu argia du Txekunek: «jai aldarrikatzaileak nahi ditugu

eta jai aldarrikatzaileak gustatzen zaizkigu Euskal Herrian, munduko beste txoko askotan bezala. Ezin gara argudio faltsuetan erori eta kultura hori galdu».

Bestaldea, herri honek aniztasunaren esparruan dituen beharrak eztabaidatu nahi dituzte epe motzean, demokratikoki eta kontsentsuan, aniztasunari daukan aitortza emanez.

Euskara ikusten dute aniztasunari herri honek egin diezaiokkeen oparirik handiena, burujabetzatik, izendatzaile komun eta lotura gisa.

UHARTEKO JAIAK

txoznen egitaraua

2017

IRAILAK

16 LARUNBATA

11:15 KALEJIRA
TRIKITILARIEKIN
(BERDINTASUNA ELKARTETIK)

12:45 HAURRENTZAKO
ENTZIERROA

13:00 MAITE ZAITUZTEGU,
KALERA!

14:30 BAZKARI HERRIKOIA
(TIKETAK; MAHATSA, GARRO, OIEZKIN)

17:30 TRIZIKLO LASTERKETA

19:00 UHARTEKO
ELEKTROTXXARANGA

Elektropikala

22:00 KONTZERTUAK

XAKIART

HIBAKUSHA



Dj Pistatxo

17 IGANDEA

13:00 JAUZIAK
17:00 SALSOTEKA
18:00 PATATA TORTILA
LEHIAKETA
20:00 *LOS DEL RAYO*
ROCK KONTZERTUA

18 ASTELEHENA

17:00 MUS TXAPELKETA
18:30

GABEZIN
Plaza Taldea

20:30 DJ-U
22:30 HERRI KARAOKEA

19 ASTEARTEA

19:30 HODEI MAGOA
"ILUSIOAREN INDARRA"

21:30 AFARI
AUTOGESTIONATUA
ETA JOKOAK

Mozorro Gana

20 ASTEAZKENA

19:30 DISKO TXIKI

21 OSTEGUNA

Arratsaldean
PINTXOPOTEOA TXOZNETAN

22 OSTIRALA

19:00 UMEENTZAKO
"BASQUE CHEF"
SUKALDARITZA
LEHIAKETA OSASUNTSUA
19:00 HERRI OLINPIADAK
00:00 KONTZERTUAK

HERDOIL



trik DANTZ
BESTA MOZA GUZTIARAKO PREST!

23 LARUNBATA

19:00 KARROPOTEOA
23:00 KONTZERTUAK

W BAKI

**BRIGADA
IMPRODUCTIVA**

DJ MAPH

ODD SIGNALS



TXOZNAGUNEAN
KARPA BAT
EGONEN DA!



**eraso
sexistarik
ez!**



Musika antikomertziala eta aldarrikatzailea sustatzeko Eguzki Irratiko saioa da Kolpez Kolpe. Irratiaren bidez, Iruñean, 107.0FM frekuentzian entzun daiteke. Iruñerriko eta Nafarroako gainontzeko herrietan irrati bidez entzun daiteke ere baina beste frekuentzia batean: 91.0FM. Saioa zuzenean entzun nahi baduzu piztu

irratia asteazkenetan, arratsaldeko zazpjetatik zortzietara. Eta, ordu horretan ezin baduzu, irrati bidez entzun ahalko duzu ostegunetan eguerdiko ordu batetan. Nahiago duzula interneten entzun? Podcast guztiak sarera, www.eguzki.eus webgunera, igotzen dituzte. Eszena lokalari lehentasuna ematen diote baina mundu osoko musikaz gozatu

ahalko duzu Kolpez Kolpen; eta estilo guztietakoa gainera: Punk, OI!, Rock&Roll, Ska, Reggae... Ez dute egestura hertsirik, saio bakoitza oso ezberdina izanik. Musikaz aparte, elkarrizketak, kronikak, eztabaidak eta abar aurkitu ditzakezu bertan, euskaraz nahiz gazteleraz. Hona hemen Kolpez Kolpe saioak egindako azken zortzi saioak.

**DENBORALDIKO
AZKEN SAIOA**
2017/6/14



**PUNKPLONA
HASTAPENETATIK**
2017/6/7



**NAFARCORE,
ERREKALEOR...**
2017/5/31



**MAIATZAK
HOGEITA LAU**
2017/5/24



**INADAPTADOS
GONBIDATUEKIN**
2017/5/17



**NOBEDADEZ
BETERIKO SAIOA**
2017/5/10



**MAIATZAREN
LEHENA**
2017/5/3



**80, GERNIKAKO
BONBARDAKETA**
2017/4/26



LOTU IZENAK

VICTOR JARA



KENY ARKANA



ALÍ PRIMERA



MIRIAM MAKETA



VIOLETA PARRA



MERCEDES SOSA



SILVIO RODRIGUEZ




ANA TIJOUX



EKIN BIDEARTI

HASIERA



STRAIK

2017 IRAILAK | 21 | 22 | 23

OSTEGUNA 21

20.00 ANDREINA JOLIN
Xarmaz beteriko bertsioak

OSTIRALA 22

18.00 EONIAN ELEKTROTXARANGA

23.00 **BLOCK PARTY. VOL III**

TITANIANS IN DUB ALONGSIDE GOLDENBOY & BOOMHEAD

DODOSOUND

NOVATO & GLAMITY SOUND

THE LADJ´S

Dj REIMY & FRIENDS

LARUNBATA 23

14.00 ELKARTASUN BAZKARIA

JAI GUNEAN HERRIKO TABERNAREN ESKUTIK

Txartelak Jai Batzordeko bulegoan eta Herriko salgai

18:00 LUZIANO

00:00 Dj MAP-H

«JENDEAK SKA ESTILOAREN SUSTRAIAK IZAN ZIREN TALDEETARA JOTZEAK MOTIBATZEN GAITU»

SKABIDEAN



Ezkerretik eskuinera, Skabidean taldeko Antonio, Tasio, Niko eta Julen. GAZTIA AZKETA

Skabidean taldeko kideekin hitz egi-terakoan ska erritmoa zainetan daramatela dirudi; pozik egiten dute berba gustatzen zaienaren inguruan baina haserre dira musikaren munduan gaur egun dauden eskubide urraketa eta injustiziekin. Besteak beste, kaleratu zuten dis-

karen harira, gero eta ezagunagoak egiten ari dira, asteburu aunitzetan kontzertua izanik. Hurrengo diska esku artean daukate eta, diotenez, ez da denbora asko pasako grabatu eta kaleratzen duten arte. Antonio, Tasio, Niko eta Julen taldearen inguruko hainbat kontuen inguruan solastu dira.



Nola sortu zen Skabidean? Eta zergatik taldearen izena?

Antonio: 2012an hasi ginen jotzen. Lehenengo Tasio, Garatea gitarrajolea, Santi baxularia, Martinez, Ulises eta ni hasi ginen. Ulises izan zen taldea sortzeko ideia izan zuena. Urte bat baino gutxiago pasata Niko tronpeta eta Julen tronboia batu ziren eta duela hilabete batzuk Imanol teklista sartu da. Gehien bat denok Iturraman ikasten genuelako eta adin antzekoa genuelako elkartu ginen.

Badirudi ez dagoela Skabideanen kontzerturik gabeko astebururik. Ondo eusten diozue erritmoari? Noiz uste duzue eman zenutela ezagunagoak egiteko saltoa?

Antonio: Nik uste dut maketa lehen pausoa izan zela. Bultzada eman ten dizu horrek.

Niko: Hasieran jendea joaten zen Skabideanen kontzertuetara pixkat rebotez. Lehen abestiak aterata ikusi genuen bazegoela abestiak entzunda kontzertuetara zihoan jendea.

Antonio: Bai, iaz, maketa atera genuen urtean, 40 kontzertu eman genituen eta nik uste hori izan zela bonbazoa. Orain ere kontzertu asko lotzen ari gara diska berria dela eta.

Tasio: Azkenean gogoak jartzen eta lana egiten duen edozein taldek lor dezake guk egindakoa.

Niko: Konpromisoak ere asko bali du. Jada izan ditugu bi kontzertu eman behar izan ditugun egunak. Bat bukatu, eta korrika bestera.

Antonio: Hurrengo egunean entsegua dagoela ahaztu gabe.

Tasio: Asko ez kobratzea ere nabari da kontzertuak lotzerako orduan.

Eta hori nola ikusten duzue?

Niko: Azkenean zuk kobratu beharko zenuke egindako lanarengatik. Por culo ematen du jotzea talde handi batekin, zuk 300 euro kobratzea, eta besteak 3000. Lan asko egin beharra dago balantza duintzeko. Gu gainera 8 gara, guk nahi dugulako, baina horrek gastu gehiago suposatzen ditu.

Julen: Beti bi kotxetan mugitu behar izaten gara gutxienez traste guztietekin. Gainera, taldekide bat askotan iparralden izaten da, taldea hiru kotxetan mugituz.

Jende aunitz bildu zen Skabideanek Vianan, 2016ko Nafarroa Oinezen, eskainitako kontzertuan @SKABIDEANTALDEA



Tasio: Azkenean, dirua gure artean banatuko bagenu, ez dakit zenbat aterako genukeen bakoitzak kontzertu batean. 20-25 euro?

Antonio: Kontua da, gehienetan, gu bezalako taldeei, oso justu ordaintzen zaiela, sikiera, proiektua aurrera atera ahal izateko.

Julen: Grabaketa lanak ere oso garestiak dira eta nonbaitetik atera behar dugu dirua. Kontzertu asko daude grabaketa bakoitzaren atzean.

Musikatik bizi daitekeela uste du-zue? Eta zer iruditzen zaizue?

Niko: Nik uste baietz.

Antonio: Gustatuko litzaiguke bizitzea, baina beti gure filosofiarekin.

Tasio: Batzuetan gehiago eskatu behar da, baina baita batzuetan ere

eman. Ezin zara itsutu. Alboko taldeak zuk baino askoz gutxiago ko-bratzen duenean ere hori aldatzen saiatu behar zara.

Antonio: «**Ilusioa ematen du egindako lan guztia fisikoan plasmatura ikusteak**»

2017an lehen diska kaleratu du-zue. Nolako izan da esperientzia? Eta nola hartu du jendeak?

Niko: Esperientzia kristona, baina folloi bat izan da; esan bezala, taldean zortzi baikara. Arbizun Peio Skalariak daukan estudioan gra-

batu dugu diska eta oso gustura ibili gara. Zerbait berria zen guretzat eta ordu pila egon behar izan ginen estudioan sarturik 10 kanta grabatzeko.

Antonio: Jendeak ongi hartu duela uste dut. Badago gainera diska fisikoki izatea oraindik maite duen jendea. Guk geuk diskak eta biniloak erosten ditugu ahal dugunean.

Julen: Ilusioa ematen du egindako lan guztia fisikoan plasmatura ikusteak.

Niko: Ongi saltzen ari dira gainera.

Zeintzuk esango zenuke direla zuen gaur egungo estiloa lortzeko izan dituzuen musika taldeen influentziak?



Niko: Hasieran 80. hamarkadako eszena lokalari erreparatu geniola esan dezakegu gehien bat. Eta Skalariak bezalako taldeen erreferentzia hasieratik izan genuen ere. Azkenaldi honetan atzerrira begiratzan dugu gehiago. Esate baterako, Jamaikar artistak.

Antonio: Nik esango nuke 80. eta 90. hamarkadetako influentziak ditugula gehienbat, eta baita 60. hamarkadakoak ere. Gaur egungoak ez dut uste.

Tasio: Eta gutxinaka genero honetan formatzen joan gara.

Niko: Ska txozneroaren tik-ak kentzen joan gara gure estiloa garatu dugun heinean.

Zein zentzu ikusten diozue musikari? Zergatik egiten duzue musika?

Niko: Gehien bat gustatzen zaigulako. Elkarrekin ongi pasatzen dugulako.

Julen: Ni adibidez 12-13 urterekin sartu nintzen taldera eta, orduetik, asteburu gehienak pasatu ditut hauekin.

Antonio: Bidaiatzea ere gustatu behar zaizu, hemendik hara pasatzen baitituzu asteburuak.

Niko: Gure adiskidetasunak behartu gaitu musika egitera.

Tasio: Eta baita jendeak hasierako ska estiloa entzutearen motibazioa. Ez soilik gure abesti batzuegatik, baizik eta gure musikaren harira ska estiloaren sustriak izan ziren taldeetara jo daitekeelako.

Antonio: Bai, gaur egun gehiengoak Gaztea bezalako irratia edo taberna gehienetan jartzen duten Spotify bidezko musika komertzialena entzuten baitu.

Niko: Diskarekin batera datorren liburuxkan hainbat ska talde aurkitu ditzakezue, interesgarriak iruditzen zaizkigunak.

Uda honetarako kontzertuak lotzen ariko zarete. Nondik ibiliko zarete?

Niko: Udan, oraingoz, ibiliko gara Iparraldetik, Bizkaian, Donostian, nola ez Nafarroan, El Bierzon...

Julen: Araban izan ezik, gehien bat Euskal Herrian joko dugu udan. Bitxia da baina ez dugu inoiz Araban jo.

Eta Hatortxu Rocken?

Niko: Ez. Badaude gazte talde asko urtean zehar lan asko egiten dugunak eta gero, guretzat aukera bat izan daitezkeen Ha-



Skabideanen kontzertua 2016ko Nafarroa Oinezen, Vianan @ZURIBOSTNERISEI

tortxu bezalako lekuetatik, ez gaituzte deitzen.

Antonio: Skabidean eta Iruñerriko beste talde asko urte osoan zehar gaude prest jotzeko, nahiz eta diru gutxiengatik izan, kausa justua iruditzen bazaigu. Ez dakit zein gazte asanblada laguntzeko, presoekin elkartzasunez, eta beste mila kontuengatik. Jendeak talde txikiak gehiago ezagutzeko aukerak heltzen direnean, ordea, gutaz ahazten direla dirudi.

Antonio: Ez da normala Hatorrxun soilik Iruñeko bi-hiru talde egotea, eta talde hauetatik gehienak jada nahiko oihartzun izatea.

Tasio: Hatortxu soilik adibide bat da, eta ez dugu jaialdi hauen atzean dagoen lan guztia kritikatu nahi, baina bai uste dugu hainbat kontu jada aldatzen hasi beharko liratekeela, bestela jai daukagu.

Julen: «Nahiko ezberdina izango da hurrengo diska, gutxienez orain arte egindako hiru abestien bidea jarraitzen badugu»

Hurrengo diska buruan duzue edo oraingoz honekin nahiko?

Niko: Bai bai, hurrengoa buruan daukagu (parreak). Hiru abesti ditugu jada, sorkuntza lanak egiteari utzi ezin diogun momentua bizitzen ari garela esango nuke.

Julen: Zitzu bizian egongo da hurrengoa. Nik uste jendeari gustatuko zaiola sortzen ari garena.

Antonio: Ez dakiguna da ea diska luzea egin edo lau abestirekin jada diska berria atera. Gainera binilo formatuan ateratzea gustatuko litzai-guke ere.

Julen: Nahiko ezberdina izango da hurrengo diska, gutxienez orain arte egindako hiru abestien bidea jarraitzen badugu.

Antonio: Oso kañeroa izango da!



Peio Skalarriak 'Estudio Bat'ean. Skabideanen azken diskaren grabaketan @SKABIDEANTALDEA



1

YOU'RE WONDERING NOW

TALDEA **THE SKATALITES**
ESTILOA **SKA**



NIKO
SKABIDEAN

2

DESPUÉS DE AMAR

TALDEA **LA SEÑORA TOMASA**
ESTILOA **BREAKBEAT**



SUAK SORKUNTZAK
ILUSTRATZAILEA

3

CUMBIA REGGAE

TALDEA **LOS AGUAS AGUAS**
ESTILOA **CUMBIA REGGAE**




PAULA GARCÍA
IRUÑA TALDEA

4

USOA

TALDEA **SEBASTIÁN IRADIER**
ESTILOA **HABANERA**



NEREA EUGUI
IRUÑA TALDEA

5

AITZINDARIEN KALEKUMEAK

TALDEA **HERDOIL**
ESTILOA **PUNK ROCK**



KARLOS ANDIÓN
SORGINKALE

6

RASTAMINTXO

TALDEA **PIKUTARA**
ESTILOA **REGGAE**




TASIO
SKABIDEAN

7

TRIBUTE TO DON DRUMMOND

TALDEA **RICO RODRIGUEZ**
ESTILOA **REGGAE**



ANTONIO
SKABIDEAN

8

ENTRE LA ESPADA Y LA PARED

TALDEA **DEMOKRAZIA ZERO**
ESTILOA **HARDCORE PUNK**



EDURNE GAZTELU
SORGINKALE

9

WOOD AND WATER

TALDEA **THE SKATALITES**
ESTILOA **SKA**



JULEN
SKABIDEAN

10

PASSOS IMPORTANTS

TALDEA **OQUES GRASSES**
ESTILOA **REGGAE**



SUAK SORKUNTZAK
ILUSTRATZAILEA

11

ZIRKORRIKA

TALDEA **NORBANAKO ETA TALDE AUNITZ**
ESTILOA **MUSIKA BALKANIKOA**



NEREA EUGUI
IRUÑA TALDEA

12

PHOENIX CITY

TALDEA **THE SKATALITES**
ESTILOA **SKA**



ANTONIO
SKABIDEAN

13

KALEKO MUSIKA

TALDEA **JO TA PUNK**
ESTILOA **PUNK ROCK**



KARLOS ANDIÓN
SORGINKALE

14

SKAFOIDE

TALDEA **AKATZ**
ESTILOA **SKA**



NIKO
SKABIDEAN

15

LA REVOLUCIÓN SEXUAL

TALDEA **LA CASA AZUL**
ESTILOA **ELEKTRO INDIE POP**



PAULA GARCÍA
IRUÑA TALDEA

16

ILUNÁTICS

TALDEA **SKATALÁ**
ESTILOA **SKA**



TASIO
SKABIDEAN

17

ZU BETI

TALDEA **HERDOIL**
ESTILOA **PUNK ROCK**



JULEN
SKABIDEAN

18

APOLOGÍA DE LA DESTRUCCIÓN

TALDEA **VAGOS Y MALEANTES**
ESTILOA **RAP**



EDURNE GAZTELU
SORGINKALE

ACABA CON LA POST-VERDAD PARTICIPANDO EN EGUZKI IRRATIA



**Necesarios: locutores, entrevistadores
tecnicos, community manager , informáticos...**

**POST EGIAREKIN BUKATU
EGUZKI IRRATIAN PARTE HARTUZ
ESATARIAK, ELKARRIZKETATZAILEAK, TEKNIKARIAK,
KOMUNIKATE KIDATZAILEAK BEHAR DITUGU**

EGUZKI@EGUZKI.EUS  